

EAEko IKASTOLA PRIBATUETAKO LAN HITZARMENA SINATU DUTE LABEK ETA PATRONALEK.

2018ko abenduan sinatutako aurre-akordioa berretsi ondoren , LABek , gehiengo sindikala dauka, eta sektoreko Patronalek, Ikastolen Elkarteak eta Eusko Ikastola Batza, lan hitzarmen berria sinatu dute.

Hitzarmen berriak aurre-akordioan jasotakoa barnebiltzen du eta hauek lirateke puntu aipagarrienak:

0-3 zikloak:

- Ikasturtean zehar ordaindutako 2 egun hartzeko eskubidea ziklo honetako langileentzat.
- Ikasturteko ordu osagarriak 105etik 125era igotzea

Hezkuntza Laguntza Espezialistak

- Astean ordu osagarri bat edukitzea.

Administrazio eta zerbitzuetako langileak:

- Ikasturtean zehar ordaindutako 2 egun hartzeko eskubidea.

Irakasleak

- 60 urtetik aurrera astean 2 eskola-ordu, osagarri bihurtzeko aukera izatea.

Lansariak:

- Irakasleak: Administrazioak aplikatutakoa
- Bestelakoak: Irakasleen igoera berdina (%)

Bestelako konpromisoak ere jasotzen ditu hitzarmenak.

- Eszedente eta beharren prozedura zehaztu eta Ikastolen Elkarteko langileak ere bertan sartzea.
- Errelebo kontratuak bideratzeko konpromisoa. Antza denez, Hezkuntza Sailak proposatutako akordioaren ildotik.
- 2019an zorraren beste zati bat ordaintzeko adostasuna bilatzeko konpromisoa, aurreko urteetako filosofia berdina erabiliz.

STEILASi zaila egiten zaio behin betiko baloraziorik egitea testu osoa ezagutu aurretik. Hala ere, harrigarria iruditzen zaio adostutako lansarien igoera itunek izandako berbera izatea eta baita eszedenteak birkokatu eta errelebo kontratua egiteko aukera Hezkuntza sailak proposatutako akordioak jasotzen dituen baldintzapetan egitean.

Eta harrigarria diogu, bata zein bestea Gizarte ekimeneko Ikastetxeetako gatazkan sindikatuok (LAB barne) bi proposamen horiek onartu ez ditugulako .

Hezkuntzan STEILAS

www.steilas.eus